| - 2025/06/ 13ko ebazpena; ikasleei ekaineko kuotak kobratzea onartzea. | - Resolución de fecha 13/06/2025; Cobro recibos alumnado mes de junio. |
| - 2025/06/14ko ebazpena; 05-2025 fakturen zerrendaren gastua onartzea. | - Resolución de fecha 14/06/2025; Aprobar el gasto de la relación de facturas 05-2025. |
| - 2025/06/14ko ebazpena; 06-2025 fakturen zerrendaren gastua onartzea. | - Resolución de fecha 14/06/2025; Aprobar el gasto de la relación de facturas 06-2025. |
| **3.- HIRU.- Kudeaketa txostena.** | **3.- TRES.- Informe de gestión.** |
| Iker Ruiz de Alegria jaunak, ikastetxeko zuzendariak, hitza hartu du eta kudeaketa txostenaren gai guztiak azaldu ditu. | Don Iker Ruiz de Alegria, director del centro, toma la palabra y menciona punto a punto todos los temas del informe de gestión. |
| - Lekualdatzea: Montevideoko eraikinera itzuli gara eta lan txiki batzuk falta diren arren, lekualdaketa amaitu dugu eta zerbitzua | - Traslado: Estamos en el edificio de Montevideo, a falta de algunos pequeños trabajos, ya hemos |

normaltasunez ematen da. Obra egin ostean, eraikina oso ondo geratu da eta zuzendariak zentroa bisitatzeko gonbidapena luzatu die bertaratuei. Datorren asteazkenean, hilaren 17an, 16:00etan, egingo dute bisita.

- Ikasgelak aldatzea: Hainbat irakasgai lekualdatu ditugu: saxofoi klasea irakasleen gelara pasatu da, eta musikaren historia eta analisiko ikasgaiak Saibigaingo eraikinera eraman dira, aukera guztiak aztertu ondoren eta espazio arazoa kontuan hartuta.
- Bilerak eta ordutegiak: ikasturte hasierako bilerak egiten ari dira eta ikasleen ordutegiak ezarri dira.
- EHME batzar nagusia: ekainean batzar nagusia egin zen, Durangoko egoitzan.
- Matrikulazio-datuak eta itxarote-zerrendak: itxarote-zerrendak kudeatzen ari gara, eta matrikulazio-datu orokorrak urrian aurkeztuko ditugu, betiko moduan.
- Hurrengo kontzertuak: hurrengo kontzertuak, Musika Hamabostaldia eta egutegian finkatutako kontzertuak antolatzen ari gara.
- Langileak: 4. puntuan bi irakasleren lanaldia handitzeko proposamena bozkatu da.

Jorge Varela jaunak galdetu du ea ikasgelaren kokapen-aldaketa behin betikoa izango den. Erabaki hori hartu aurretik azalpen baten falta sumatu du.

Iker Ruiz de Alegria jaunak erantzun dio printzipioz behin betikoa izango dela. Gaineratu du espazio arazoak dituztela eta zentroa handitu ezean, laster beste leku batzuk bilatu beharko dituztela.

Arantza Barrenetxea andreak aldaketa horren prozedura azaldu dio: premiazkoa zenez, aukera guztiak aztertu ziren, eta hori izan zen

finalizado el traslado y el servicio se da con normalidad.

Tras las obras, el cambio ha quedado muy bien y el director invita a los asistentes a visitar el centro, quedan en visitarlo el próximo miércoles, 17, a las 16:00h.

- Cambio de aulas y espacios: Se han modificado varias aulas en cuanto a la ubicación, la asignatura de saxofón se ha pasado a la sala de profesores y las asignaturas de historia y análisis de la música se han llevado al edificio de Saibigain, después de analizar todas las posibilidades, teniendo en cuenta la problemática de espacio.
- Reuniones y horarios: Se están llevando a cabo las reuniones de inicio de curso y se han puesto los horarios del alumnado.
- EHME: El mes de junio se realizo la junta general en nuestra sede de Durango.
- Datos de matriculación y listas de espera: Se están gestionando las listas de espera y los datos generales de matriculación los traeremos en octubre como es habitual.
- Próximos conciertos: Estamos preparando los siguientes conciertos, Quincena Musical, y los conciertos fijados en el calendario.
- Plantilla laboral: En el punto 4 se votara la proposición de aumento de la jornada laboral de dos profesores.

Don Jorge Varela, pregunta sobre el cambio de ubicación de aula, si va a ser definitivo y echa en falta una explicación previa antes de tomar esta decisión.

Don Iker Ruiz de Alegria, le contesta que debido a la problemática del espacio, en principio si será definitivo, ya que o se amplia nuestro centro o tenemos que buscar otras ubicaciones.

| | |
|---|---|
| egingarriena Eusko Jaurlaritzaren araudia betez. | Doña Arantza Barrenetxea le explica el procedimiento de este cambio, que debido a su urgencia se estudiaron todas las posibilidades y esta era la más factible cumpliendo la normativa de Gobierno Vasco. |
| Jorge Varela jaunak matrikulazio berrien datuak eta itxarote-zerrendak eskatu ditu. Iker Ruiz de Alegria jaunak adierazi dio datu horiek Excel batean jasotzen direla eta urriko batzarrean aurkeztuko direla, ohikoa den bezala. | Don Jorge Varela solicita los datos de la nueva matriculación y las listas de espera. Don Iker Ruiz de Alegria, le indica que tenemos un Excel donde recogemos esos datos y los presentaremos en la próxima junta de octubre como es habitual con los datos generales de la nueva matriculación. |
| **4.- LAU.- Irakasleen lanaldia handitzeko proposamena.** | **4.- CUATRO.- Proposición de aumento de jornada laboral del profesorado.** |
| Tronboi eta kontrabaxu irakasleen lanaldia handitzeko proposamena aurkeztu da. Lehenengoak % 8ko igoera izango luke, % 36ko lanalditik % 44ra. Bigarrenak, berriz, % 4,8ko igoera izango luke, % 19tik %23,8ra. Proposamenaren arrazoia honako hau da: irakasgai horietan eskaria asko handitu da eta irakasleen lanaldiak egonkortu dira. | Se presenta la proposición de aumento de jornada laboral de los profesores de trombón y contrabajo, el primero con una subida del 8%, pasando de una jornada del 36% al 44% y el segundo una subida del 4,8%, pasando del 19% al 23,8%. Se explica la razón de la propuesta, que es debido a la demanda y crecimiento en estas asignaturas así como la estabilización de las jornadas laborales de los profesores. |
| Jorge Varela jaunak hitza hartu du eta ikasleen datuen eta itxarote-zerrenden informazioa eskatu du, erabaki zuzena hartu ahal izateko, datu horiek gabe ezin baitu ikusi benetako beharra dagoen ala ez. | Don Jorge Varela, toma la palabra y solicita información de datos de alumnado y listas de espera de estas asignaturas para poder tomar una decisión correcta ya que sin datos no pueden ver la necesidad real. |
| Iker Ruiz de Alegria jaunak ikasgai horien hazkundearen arrazoia azaldu du. Errepikatu du ikasle kopuruaren datu ofizialak urrian aurkeztuko direla, hilabete honetan baja eta alta asko baitaude. | Don Iker Ruiz de Alegria, expone la razón de aumento de estas asignaturas así como el crecimiento en las aulas y en octubre se presentaran los datos oficiales ya que en este mes hay mucho movimiento de bajas y altas. |
| Tronboi eta kontrabaxu irakasleen lanaldia handitzeko bozketa egin da, eta emaitza aldekoa izan da: | Se lleva a votación la ampliación de jornada laboral de los profesores de contrabajo y trombón con este resultado favorable: |
| - **Alde**:<br>o EAJ-PNV: 4<br>o PP: 1<br>o DES/SVD: 1 | - **A favor**: EAJ-PNV: 4<br>PP: 1<br>DES/SVD: 1 |
| - **Kontra**: Bat ere ez | - **En contra**: Ninguno |
| - **Abstentzioak**: | |

| | | |
|---|---|---|
| o EH-BILDU-Durango: 3<br>o HE-ID: 1 | | - **Abstenciones**: EH-BILDU-Durango: 3<br>HE-ID: 1 |
| **5.- BOST.- Galde-eskeak.**<br><br>Jorge Varela jaunak bi puntu argitzeko eskatu du:<br><br>1- AJAko puntu baten inguruan argitzea, zuzendaritza-karguak hautatzeko puntuari dagokiona, araudia bete dela argi ez dagoelako, beraz, hauteskundeak baliogabeak izan ahal dira.<br><br>Gai horri buruz eztabaidatu ondoren, Kontseilu nagusiari informatuko zaio eta OOGren hurrengo bilerara eramango da, eta han puntu hori zuzendu eta onartuko da. Urriko batzarrean aurkeztuko da berriro, eta, beharrezkoa balitz, ikastetxeko zuzendaritza-karguak hautatzeko prozesua errepikatuko da.<br><br>2- Irakasle bat edo batzuen egoerari buruzko informazioa eskatu du, irakasleen aldaketa proposamen batzuen inguruan ezagutu du, eta horren egoera zein den galdetu du, irakasleei ezinegona sortu du eta dirudienez ezin zen egin.<br><br>Asier Bikandi jaunak, erakundeko gerenteak, hitza hartu eta kasu hori azaldu du. Bi irakasle dira beren lan-egoerari buruzko kexa edo iradokizun bat aurkeztu dutenak. Ikastetxeko zuzendaritzak haiek ematen zuten irakasgai bat banatzea proposatu die. Arrazoi pedagogikoak direla medio, irakasgai hori lanaldi partzialeko irakasle batek ematea erabaki dute. Irakasle horri bere lanaldiko orduak gehitu behar zaizkio irakasgaia emateko, eta horrek 1. kapituluko gastua handitzea dakar. Juridikoki kontsultatu ondoren, beren eginkizunak itzultzea erabaki dute. | | **5.-CINCO.- Ruegos y preguntas**<br><br>Don Jorge Varela solicita que se le aclaren dos puntos que le preocupan:<br><br>1- Le preocupa que se hayan hechos las elecciones para la dirección del centro sin respetar las normas del ROF aprobado por el OMR. Solicita aclaración de si el hecho de no haber realizado las elecciones conforme el ROF aprobado es causa de nulidad.<br><br>Tras debatir sobre este tema quedan en que se informara al consejo rector sobre esto y se llevará a la próxima reunión del OMR donde se aprobará y se rectificara el punto y se presentará de nuevo en la junta de octubre y si fuera necesario se repetirá el proceso de elección de cargos directivos del centro.<br><br>2- Expone que han tenido conocimiento sobre una propuesta de modificaciones a alguna o algunas profesoras. Pregunta por cuál ha sido la situación que se ha dado, que parece que ha generado malestar y que, al parecer, no se podía hacer.<br><br>Don Asier Bikandi, gerente del Organismo toma la palabra y expone el caso. Son dos profesoras que han presentado una queja o sugerencia sobre su situación laboral. Desde la dirección del centro les han propuesto una distribución de una asignatura que impartían ellas y que por razones pedagógicas han decidido que las imparta un profesor a jornada parcial al que hay que aumentar horas de su jornada para impartir la asignatura lo que implica un incremento del gasto en capitulo 1. Después de consultarlo jurídicamente han decidido devolverles sus funciones.<br><br>Don Iker Ruiz de Alegria, director del centro, expone que la decisión que se tomó fue puramente pedagógica y siempre pensando |

| | | |
|---|---|---|
| Ikastetxeko zuzendariak azaldu du hartutako erabakia pedagogikoa zela, betiere bertako ikasleen musika-hezkuntzan pentsatuta.<br><br>Oihana Estibez andreak langileen egonkortze-prozesuari buruz galdetu du. Duela hiru hilabete mezu elektroniko bat bidali zuen gerentziara, informazioa eskatzeko, baina oraindik ez du erantzunik jaso.<br><br>Asier Bikandi jaunak eta Arantza Barrenetxea andreak erantzun diote giza baliabideen arduradunari bideratu ziotela.<br><br>Eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera eman dio batzarrari; eta nik, erakunde autonomoaren idazkari naizen honek, akta jaso eta egiaztatu dut. | | en la educación musical de nuestro alumnado.<br><br>Doña Oihana Estibez pregunta sobre el proceso de estabilización de los trabajadores del centro. Envió un email a gerencia hace tres meses solicitando información y aún no le ha respondido nadie.<br>Don Asier Bikandi y Doña Arantza Barrenetxea responden que lo derivaron a la responsable de recursos humanos.<br><br>No habiendo más asuntos que tratar, el Presidente da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretaria del organismo autónomo, doy fe. |
| | | |

Arantza Barrenetxea | Goiuri Aginako | Asier Perugorria

Julene Zamalloa | Juan Antonio Bueno | Oihana Estibez

Sheila Gonzalez | Jorge Varela | Carlos David Garcia

**2025eko urriaren 15ean - 15 de octubre de 2025**

**PRESIDENTEA** · Presidenta
Arantza Barrenetxea Arruti (EAJ-PNV))

**BATZARKIDEAK** · Asistentes
Arantza Barrenetxea Arruti (EAJ-PNV)
Julene Zamalloa (EAJ-PNV)
Sara Oceja (EAJ-PNV) – Asier Perugorria
Juan Antonio Bueno Moreno (EH BILDU-Durango)
Oihana Estibez Barreña (EH-BILDU-Durango)
Goiuri Aginako Etxenagusia (EH-BILDU-Durango)
Sheila Gonzalez (DES/SVD) – Jessica Ruiz
Jorge Varela Dorrio (HE-ID)
Carlos David Garcia Fernandez (PP) – Ez da bertaratu

**IDAZKARIA** · Secretario - Iker Ruiz de Alegria Medel (Zuzendaria)

Asier Bikandi Elorriaga – Erakunde Autonomoen Gerentea

| | |
|---|---|
| **Tokia** · Lugar: | Durangoko Udaletxea |
| **Izaera** · Naturaleza: | Ezohikoa / **Ohikoa** · Extraordinaria / **Ordinaria** |
| **Hasiera ordua** · Hora de inicio: | 16:00 |
| **Amaiera ordua** · Hora final: | 16:45 |

Erakunde autonomoko presidenteak lehen deialdian batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntu hauek aztertu dira:

Abierta la sesión por la Presidenta del organismo autónomo en primera convocatoria, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del Día y que son los siguientes:

| | | |
|---|---|---|
| **1.- BAT.- Aurreko akten kontu ematea.** | | **1.- UNO.- Dación de cuentas de actas pendientes.** |
| - Aurreko irailaren 10eko aktari dagokionez, Jorge Varela jaunak, bileraren audioa eskatu du, aktan agertzen diren aipamen batzuekin ados ez dagoelako. Emailez bidaliko zaio, eta aldaketa proposamenak, Leireri, ikastetxeko idazkariari, bidaliko dizkio. | | Respecto al último acta del 10 de septiembre, Don Jorge Varela solicita el audio de la reunión ya que no cree haber citado textualmente lo indicado en el acta. Se le enviara por email y en su caso enviara a Leire, secretaria del centro, sus propuestas. |
| **2.- BI.- Lehendakaritzaren ebazpenen kontu ematea.** | | **2.- DOS.-Dación de cuentas de resoluciones de la presidencia.** |
| Presidenteak ebazpen hauen berri eman du: | | La presidente da cuentas de las siguientes resoluciones: |
| - 2025/10/02ko ebazpena; ikasleen materialaren kuotak kobratzea onartzea. | | - Resolución de fecha 02/10/2025; aprobación cobro cuota material alumnado. |
| - 2025/09/18ko ebazpena; KEB elektrikoaren akatsak zuzentzeko AD gastua onartzea. | | - Resolución de fecha 18/09/2025; aprobación gasto AD subsanación defectos OCA eléctrica. |
| - 2025/09/19ko ebazpena; 07-2025 fakturen zerrendaren gastua onartzea. | | - Resolución de fecha 19/09/2025; aprobación gasto relación de facturas 07-2025. |
| - 2025/09/25eko ebazpena; ikasleei irraileko kuotak kobratzea onartzea. | | - Resolución de fecha 25/09/2025; Cobro recibos alumnado mes de septiembre. |
| - 2025/09/30eko ebazpena; fakturen zerrendatik kanpoko gastuak onartzea. | | - Resolución de fecha 30/09/2025; Aprobar otros gastos fuera de relación de facturas. |
| **3.- HIRU.- Kudeaketa txostena.** | | **3.- TRES.- Informe de gestión.** |

| | | |
|---|---|---|
| Iker Ruiz de Alegria jaunak, ikastetxeko zuzendariak, hitza hartu du eta kudeaketa txostenaren gai guztiak azaldu ditu. | | Don Iker Ruiz de Alegría, director del centro, toma la palabra y menciona punto a punto todos los temas del informe de gestión. |
| - Ikasturte hasierako bilerak: Lehenengo klaustroa eta gero, beste bilera bat egin zen kontzertu pedagogikoak antolatzeko. Urriaren 10ean bigarren klaustroa eta mintegiak bildu ziren IIP eguneratzeko. | | - Reuniones principios de curso: Después del primer claustro hubo otra reunión para tratar los conciertos pedagógicos, el 10 de octubre el segundo claustro del curso y los seminarios se han reunido para segur actualizando el PCC. |
| - Matrikulazio datuak eta itxarote-zerrendak: Matrikulazio berriaren datuak aurkeztu dira, datuen historiarekin, eta ikasgaien itxarote-zerrendekin batera. Orokorrean ikasle kopurua jaitsi da eta itxarote-zerrenda oso txikia da. | | - Datos matriculación y listas de espera: Se presentan los datos de la nueva matriculación con el historial de datos y las listas de espera, en general bajan los datos totales y apenas hay listas de espera. |
| - Bisita gidatua: 8 pertsona hurbildu dira ikastetxea ikustera, eta harrera ona izan du. | | - Visitas guiadas: Hubo 8 visitas en el centro con buena aceptación. |
| - Erromeria eguna: Udalak antolatutako ekintzen barruan, gure txistulari taldeak parte hartu du. | | - Día de romeria: Dentro de las actividades organizadas por el ayuntamiento participo un grupo de txistularis del centro. |
| - Gau beltza: Udalak gure laguntza eskatu digu, eta antolatzen ari gara, gure bandak Tabira bandarekin batera egun horretan kontzertu bat eskaintzeko. | | - Gau beltza: El ayuntamiento nos ha solicitado participación y estamos intentando que la banda del centro junto a la banda de Tabira tomen parte en este evento. |
| - Herriko jaiak: Urriaren 12an Bart Sax taldeak kontzertua eskaini zuen eta harrera ona izan zuen. | | - Fiestas de Durango: El pasado domingo el grupo Bart sax del centro ofrecio un concierto, el cual tuvo buena aceptación. |
| - EHME: Irailaren 25ean bildu ziren Durangon. | | - EHME: El pasado 25 de septiembre se reunión en Durango el equipo directivo. |
| - Hurrengo kontzertuak: Ohiko kontzertu pedagogikoak egiteko bilerak egiten ari dira. Bertara, Durangoko ikastetxe guztietako umeak joaten dira. Hurrengo kontzertua azaroaren 19an izango da, Santa Zezilia eguna ospatzeko. | | - Próximos conciertos: Se están organizando reuniones para poner en marcha los habituales conciertos pedagógicos donde acuden todos los niños y niñas de los diferentes colegios de Durango y está dentro de nuestras acciones de captación. El próximo concierto será el día 19 de noviembre por santa Cecilia. |
| - OOG: Bilera atzeratu egin da, irakasle batzuek AJA aldatzeko proposamen bat egin nahi dutelako. Hau ondo aztertu eta bertan sar daitezkeen baloratu behar dugu. | | - OMR: Hemos tenido que atrasar la reunión ya que se han presentado nuevas propuestas para incorporar en el ROF y las que tenemos que consultar si tienen cabida en este. |
| - XXXVI. Musika Hamabostaldia: Azaroan egitaraua aurkeztuko dugu. | | |

| | |
|---|---|
| - Orkestraren zuzendaritza aldatzeko prozesua (irizpideak): Urtarrilean, behin IIP amaituta, hari-instrumentuen mintegia egingo dugu, eta proposamenak hona ekarriko ditugu.<br>- Formakuntza: EHMEk antolatutako ikastaroak egingo ditugu ikasturtean zehar.<br>- Webgunea: Udaleko kalitate sailean dagoen pertsona faltagatik, gure webgunea berritzeko lana datorren ikasturtera atzeratuko da. | - XXXVI Quincena Musical: En noviembre presentaremos los conciertos organizados dentro de la Quincena Musical.<br>- Propuesta para modificar la dirección de la orquesta (criterios): En enero se presentaran propuestas una vez finalizado el PCC y se presentaran aquí.<br>- Formación: Se llevaran a cabo los cursos habituales de la EHME durante el curso escolar.<br>- Web nueva: Debido a la falta de personal en el departamento de calidad, se pospone renovar la web para el próximo curso. |
| Jorge Varela jaunak OOGren puntuaren inguruan hitz egin du, eta gaia aztertzea eta gerentzian kontsulta egitea proposatu du. Iker Ruiz de Alegria jauna ados dago eta kontsulta egingo dutela esan du. | Don Jorge Varela, toma la palabra respecto al punto del OMR, sugiere aclarar este tema y realizar la consulta a gerencia. Don Iker Ruiz de Alegría, esta de acuerdo y quedan en aclararlo lo antes posible. |
| Oihana Estibez andreak areto nagusiko eszenatokiko irisgarritasunaren inguruan galdetu du. Iker Ruiz de Alegria jaunak, erantzun du oraindik ez dagoela prest. Gaineratu du ate nagusiko irisgarritasunaren gaia ere pendiente dagoela, eta bulego teknikoan galdetuko duela. | Doña Oihana Estibez pregunta sobre la accesibilidad en el escenario del salón de actos del centro. El director responde indicando que está aún pendiente así como la accesibilidad en la puerta principal, volverán a preguntar a la oficina técnica. |
| **3.- LAU.- Galde-eskeak.** | **3.- CUATRO.- Ruegos y preguntas.** |
| Jorge Varela jaunak, AJAn dagoen "zuzendaritza taldearen aukeratze prozesuari" buruz egindako galderaren inguruan galdetu du. Iker Ruiz de Alegria jaunak, erantzun dio oraindik ez duela erantzunik jaso. Gaineratu du, Erakunde Autonomoko gerentea den Asier Bikandiri galdetuko diotela, eta erantzuna jakin bezain pronto jakinaraziko dietela. | Don Jorge Varela, pregunta sobre la consulta que realizo sobre el proceso de elecciones de cargos directivos incluida en el ROF. Don Iker Ruiz de Alegría, contesta indicando que Don Asier Bikandi, el Gerente del Organismo aún no le ha dado una respuesta, os informaremos en cuanto la tengamos. |
| Eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera eman dio batzarrari; eta nik, erakunde autonomoaren idazkari naizen honek, akta jaso eta egiaztatu dut. | No habiendo más asuntos que tratar, el Presidente da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretaria del organismo autónomo, doy fe. |

| | | |
|---|---|---|
| Arantza Barrenetxea | Goiuri Aginako | Asier Perugorria |
| Julene Zamalloa | Juan Antonio Bueno | Oihana Estibez |
| Jessica Ruiz | Jorge Varela | |

**2025eko azaroaren 12an - 12 de noviembre de 2025**

**PRESIDENTEA** · Presidenta
Arantza Barrenetxea Arruti (EAJ-PNV))

**BATZARKIDEAK** · Asistentes
Arantza Barrenetxea Arruti (EAJ-PNV)
Julene Zamalloa (EAJ-PNV)
Sara Oceja (EAJ-PNV
Juan Antonio Bueno Moreno (EH BILDU-Durango)
Oihana Estibez Barreña (EH-BILDU-Durango)
Goiuri Aginako Etxenagusia (EH-BILDU-Durango)
Sheila Gonzalez (DES/SVD) – Jessica Ruiz
Jorge Varela Dorrio (HE-ID)
Carlos David Garcia Fernandez (PP)

**IDAZKARIA** · Secretario - Iker Ruiz de Alegria Medel (Zuzendaria)

Asier Bikandi Elorriaga – Erakunde Autonomoen Gerentea

| | |
|---|---|
| **Tokia** · Lugar: | Durangoko Udaletxea |
| **Izaera** · Naturaleza: | Ezohikoa / **Ohikoa** · Extraordinaria / **Ordinaria** |
| **Hasiera ordua** · Hora de inicio: | 16:00 |
| **Amaiera ordua** · Hora final: | 16:45 |

Erakunde autonomoko presidenteak lehen deialdian batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntu hauek aztertu dira:

Abierta la sesión por la Presidenta del organismo autónomo en primera convocatoria, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del Día y que son los siguientes:

| | |
|---|---|
| **1.- BAT.- Aurreko akten kontu ematea.** | **1.- UNO.- Dación de cuentas de actas pendientes.** |
| - Aurreko bi aktak onartu dira, irailaren 10ekoa eta urriaren 15ekoa. | Se aprueban las dos últimas actas, la del 10 de septiembre y la del 15 de octubre. |
| **2.- BI.- Lehendakaritzaren ebazpenen kontu ematea.** | **2.- DOS.-Dación de cuentas de resoluciones de la presidencia.** |
| Presidenteak ebazpen hauen berri eman du: | La presidente da cuentas de las siguientes resoluciones: |
| - 2025/10/15eko ebazpena; ikasleen urriko kuotak kobratzea onartzea. | - Resolución de fecha 15/10/2025; aprobación cobro cuota recibos alumnado mes de octubre. |
| - 2025/10/23ko ebazpena; kurtso osagarrien laguntza onartzea. | - Resolución de fecha 23/10/2025; aprobación ayuda cursos complementarios. |
| - 2025/10/16ko ebazpena; 08-2025 fakturen zerrendaren gastua onartzea. | - Resolución de fecha 16/10/2025; aprobación gasto relación de facturas 08-2025. |
| - 2025/10/31ko ebazpena; urriko kuotak itzultzea onartzea. | - Resolución de fecha 31/10/2025; Aprobar otros gastos fuera de relación de facturas. |
| - 2025/10/31ko ebazpena; fakturen zerrendatik kanpoko gastuak onartzea. | - Resolución de fecha 31/10/2025; aprobación de gasto por devolución de recibos mes de octubre. |
| **3.- HIRU.- Kudeaketa txostena.** | **3.- TRES.- Informe de gestión.** |
| Iker Ruiz de Alegria jaunak, ikastetxeko zuzendariak, hitza hartu du eta kudeaketa txostenaren gai guztiak azaldu ditu. | Don Iker Ruiz de Alegría, director del centro, toma la palabra y menciona punto a punto todos los temas del informe de gestión. |
| - Musika Hamabostaldia: Bi kontzertu geratzen dira amaitzeko eta momentuz harrera ona izan dute. | |

| | |
|---|---|
| - Bajak: Ikastetxean egoten diren bajak aztertzen ari dira; lantaldeak sortu ditugu hori kudeatzeko.<br>- OOG: OOGren ikasturteko lehenengo bilera urriaren 24an egin zen. Idazkariaren liberazioa izan ezik, beste puntu guztiak bozkatu zituzten. Hiru onartu ziren: Kontseilu Errektoreak eskatutakoa, beste mintegi bat sartzea eta hauteskundeetarako Zuzendaritza plangintza aurkeztea.<br>- Bilerak: Mintegiak elkartzen ari dira, IHP eguneratzeko.<br>- EHME: Ohiko bilerak egiten ari dira, Euskal Herriko Musika eta dantza Eskolen gaiak jorratzeko.<br>- Saxo Jardunaldia: Saxo ikasgelatik bi eguneko jardunaldia antolatu da azaroaren 28an eta 29an egiteko: Anton Gomez ikasle ohiak bi kontzertu eskainiko ditu.<br>- Hurrengo kontzertuak: Ohiko kontzertu pedagogikoak egiteko bilerak egiten ari dira. Horrez gain, honako hauek aurreikusten dira: errepertorio gelak antolatutako kontzertuak, ikasleak eszenatokira igo daitezen, Jam Sesion, gabonetako kontzertuak, Santa Zezilia kontzertua eta aurten, berrikuntza gisa, gabonetako zuhaitzetako argiak piztuko ditugu.<br>- Ate irekien jardunaldia: Azaroaren 15ean, larunbatean, ate irekien jardunaldiak egingo dira eraikina ezagutzeko.<br>- Eskolania: Eskolania bat sortzeko proiektua sortzen ari da Lengoaia Musikaleko mintegitik. Datorren hilabetean bilera honetara ekarriko da onartzeko. Aspalditik pentsatutakoa da.<br>Juan Antonio Bueno jaunak galdetu du ea egitasmo honen ardura nork izango duen. Zuzendariak ikastetxeko irakasle bat izango dela erantzun dio.<br>- Orkestraren zuzendaritza aldatzeko proposamena (irizpideak): Urtarrilean, behin IIP amaituta, hari-instrumentuen mintegia egingo dugu, eta | - Quincena Musical: Quedan dos conciertos para finalizar el evento, están teniendo buena aceptación.<br>- Bajas centro: Estamos llevando a cabo equipos de trabajo para analizar las bajas del centro con diferentes ideas.<br>- OMR: La reunión del OMR se celebró el pasado 24 de octubre donde menos la liberación del secretario docente se votaron el resto de temas. Se aprobaron tres de ellos; el propuesto por la junta rectora, la creación de otro seminario y los candidatos en las elecciones del equipo directivo.<br>- Reuniones: Se están reuniendo los seminarios para seguir actualizando el PEC.<br>- EHME: Se sigue reuniendo para tratar diferentes temas que afectan a las Escuelas de Música y Danza del País Vasco.<br>- Jornada Saxo: El 28 y 29 de noviembre se celebrara esta jornada con dos conciertos de la mano de un ex alumno, Anton Gomez.<br>- Próximos conciertos: Conciertos pedagógicos, conciertos del aula de repertorio, para que el alumnado salga al escenario, Jam Sesion, Santa Cecilia, conciertos de navidad, encendido de luces como novedad este curso.<br>- Puertas abiertas: El sábado 15 de noviembre.<br>- Escolanía: Desde el seminario de lenguaje musical tras la petición del coro de Durango de hacer una Escolanía para no perder el gusto por el coro se está trabajando en ello.<br>Don Juan Antonio Bueno pregunta quién se encargara de este proyecto, el director le responde que será una profesora del mismo centro.<br>- Propuesta para modificar la dirección de la orquesta (criterios): En enero se presentaran propuestas una vez finalizado el PCC y se presentaran aquí. |

| Euskara | Castellano |
|---|---|
| proposamenak hemen aurkeztuko ditugu.<br>- Formakuntza: EHMEk antolatutako ikastaroak egingo ditugu ikasturtean zehar.<br>- Webgunea: Udaleko kalitate sailean dagoen pertsona faltagatik, gure webgunea berritzeko lana datorren ikasturtera atzeratuko da.<br>- Usoekin arazoak: arazoak dauzkagu usoekin eta kasua aztertzen ari gara. | - Formación: Se llevaran a cabo los cursos habituales de la EHME durante el curso escolar.<br>- Web nueva: Debido a la falta de personal en el departamento de calidad, se pospone renovar la web para el próximo curso.<br>- Problema con palomas: Tras la obra del tejado en los alrededores del edificio esta habiendo problemas con las palomas, lo hemos trasladado a la oficina técnica y están analizando la mejor solución. |
| Oihana Estibez andreak galdetu du ea usoen arazoari aurre egiteko zeozer egin den. Sara Oceja andreak erantzun dio horretan dabiltzala kasua aztertzen ari dira eta txostena eskatu dute konponbidea erabakitzeko. | Doña Oihana Estibez pregunta si se ha hecho o pensado en algo, Doña Sara Oceja responde diciendo que están en ello, se esta analizando y se ha pedido un informe para buscar una solución. |
| **3.- LAU.- Galde-eskeak.** | **3.- CUATRO.- Ruegos y preguntas.** |
| Ohiana Estibez andreak hitza hartu du eta ikastetxeko atezainak eskatutako lanaldi egokitzapenaren inguruan galdetu du. Bere eskaera goizeko 10:00etatik arratsaldeko 18:00ak arte lan egitea da. Galdetu du ea 18:00etatik aurrera zerbitzua nork eskainiko duen. | Doña Ohiana Estibez toma la palabra y habla sobre los comentarios que le han llegado sobre la petición de la trabajadora en la conserjería del centro sobre la adaptación de su horario, de 10:00h a 18:00h, si a partir de las 18:00h no se va a contratar a nadie. |
| Asier Bikadi jaunak, Erakundeko gerenteak, azaldu du langileak eskubidea duela bere ordutegiaren egokitzapena eskatzeko kontziliazioagatik. Giza Baliabideen buruarekin batera, adostasun batera heldu dira, epaitegira joanez gero, arrazoia langileari emango lioketelako. Kontziliazio orduak ezin dira ordezkatu; horregatik, zuzendaritza taldea antolatu behar da, zerbitzua betetzeko 18:00etatik aurrera. Hala ere, baina lanean gabiltza beste konponbide bat aurkitzeko. | Don Asier Bikandi, gerente del Organismo explica que por ley no pueden contratar a nadie, la trabajadora tiene derecho a solicitar adaptación de horario por conciliación familiar y han llegado a un acuerdo junto a la responsable de recursos humanos y tienen que concedérselo ya que si acude al juzgado le darían la razón a la trabajadora. Mientras tanto será el equipo directivo quién tiene que organizarse para cubrir esas horas hasta que se tome otra solución, cuya previsión será la de sacar otra plaza y poder cubrir el servicio. |
| Oihana Estibez andreak bere ikuspuntua azaldu du, eta esan du kontratatzeko beste era batzuk daudela zerbitzua bertan behera | Doña Ohiana Estibez expone su punto de vista, y dice que hay otras formas de contratación para que otra persona pueda cubrir las horas de conserjería. |

| | | |
|---|---|---|
| ez geratzeko eta beste atezain bat egoteko ordutegi horretan. | | Don Asier Bikandi, insiste en que no puede ser ya que la contratación seria por fraude de ley y tendríamos problemas serios. La única solución es organizarse hasta que se pueda crear una plaza en la RPT. |
| Asier Bikandi jaunak azpimarratu du legez ezin dela, bestela lege iruzurra izango litzatekeelako. Konponbidea LPZn beste plaza bat sortzea izango da, baina hori aztertu beharreko zerbait da. | | Doña Arantza Barrenetxea, presidenta del Organismo, añade que están analizando el tema con diferentes reuniones y se tomaran las medidas oportunas. |
| Arantza Barrenetxea andreak Erakundeko Presidenteak, esan du gai hau aztertzen ari direla hainbat bileratan eta beharrezko neurriak hartuko direla. | | |
| Eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera eman dio batzarrari; eta nik, erakunde autonomoaren idazkari naizen honek, akta jaso eta egiaztatu dut. | | No habiendo más asuntos que tratar, el Presidente da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretaria del organismo autónomo, doy fe. |

Arantza Barrenetxea    Goiuri Aginako    Sara Oceja

Julene Zamalloa    Oihana Estibez    Juan Antonio Bueno

Sheila Gonzalez    Jorge Varela    Carlos David Garcia

**2025eko abenduaren 3an - 3 de diciembre de 2025**

**PRESIDENTEA** · Presidenta
Arantza Barrenetxea Arruti (EAJ-PNV))

**BATZARKIDEAK** · Asistentes
Arantza Barrenetxea Arruti (EAJ-PNV)
Julene Zamalloa (EAJ-PNV)
Juan Antonio Bueno Moreno (EH BILDU-Durango
Oihana Estibez Barreña (EH-BILDU-Durango)
Goiuri Aginako Etxenagusia (EH-BILDU-Durango)
Sheila Gonzalez (DES/SVD)
Jorge Varela Dorrio (HE-ID) ) – Ez da bertaratu
Carlos David Garcia Fernandez (PP)

**IDAZKARIA** · Secretario - Iker Ruiz de Alegria Medel (Zuzendaria)

Asier Bikandi Elorriaga – Erakunde Autonomoen Gerentea

| | |
|---|---|
| **Tokia** · Lugar: | Durangoko Udaletxea |
| **Izaera** · Naturaleza: | Ezohikoa / **Ohikoa** · Extraordinaria / **Ordinaria** |
| **Hasiera ordua** · Hora de inicio: | 16:00 |
| **Amaiera ordua** · Hora final: | 16:45 |

Erakunde autonomoko presidenteak lehen deialdian batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntu hauek aztertu dira:

Abierta la sesión por la Presidenta del organismo autónomo en primera convocatoria, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del Día y que son los siguientes:

| | | |
|---|---|---|
| **1.- BAT.- Aurreko akten kontu ematea.** | | **1.- UNO.- Dación de cuentas de actas pendientes.** |
| - Aurreko akta onartu da, azaroaren 12koa. Aldaketa bakarra egin behar da; kudeaketa txostenean, Escolania aipatzen den puntuan, Juan Antonio Buenok hitz egiten du ez Carlosek. | | Se aprueba la última acta, la del 12 de noviembre. Solo hay que modificar en el punto del informe de gestión, en el punto donde se habla de la Escolania, quien habla es Don Juan Antonio Bueno en lugar de Carlos. |
| **2.- BI.- Lehendakaritzaren ebazpenen kontu ematea.** | | **2.- DOS.-Dación de cuentas de resoluciones de la presidencia.** |
| Presidenteak ebazpen hauen berri eman du: | | La presidente da cuentas de las siguientes resoluciones: |
| - 2025/11/15eko ebazpena; ikasleen azaroko kuotak kobratzea onartzea. | | - Resolución de fecha 15/11/2025; aprobación cobro cuota recibos alumnado mes de noviembre. |
| - 2025/11/12ko ebazpena; BEZa ordaintzeko gastua onartzea: Javier Tecnicos Electricos S.L. | | - Resolución de fecha 12/11/2025; aprobación pago IVA Javier Tecnicos Electricos S.L.. |
| - 2025/11/24ko ebazpena; AD gastua onartzea: webguneko mantenua 2026 ekitaldirako, Omesa. | | - Resolución de fecha 24/11/2025; aprobación gasto AD para 2026 mantenimiento web, OMESA. |
| - 2025/11/24ko ebazpena; AD gastua onartzea, irakasleen gelarako ordenagailu eramangarri bat erosteko. | | - Resolución de fecha 24/11/2025; Aprobar gasto AD para adquisición portátil profesorado. |
| Juan Antonio Bueno jaunak, autobus baten faktura baten inguruan galdetu du, eta Arantza Barrenetxeak erantzun dio operara joateko zerbitzuagatik izan zela. | | Don Juan Antonio bueno pregunta por la factura del autobús, Doña Arantza Barrenetxea responde que es el servicio para acudir a la opera ABAO. |
| **3.- HIRU.- Kudeaketa txostena.** | | **3.- TRES.- Informe de gestión.** |
| Isabel Balanzategui Uriarte andreak, ikastetxeko ikasketaburuak, hitza hartu du eta kudeaketa txosteneko gai guztiak azaldu ditu. | | Doña Isabel Balanzategui Uriarte, jefa de estudios del centro, toma la palabra y menciona punto a punto todos los temas del informe de gestión. |

- Ekintza berriak: Gabonetako argiak piztea. Musika eta Mugimendua eta Lengoaia Musikaleko ikasle bakoitza apaingarri bat egiten ari da Gabonetako zuhaitza apaintzeko. Argiak abenduaren 4an piztuko dira aurreinstrumentuko ikasgaiaren ordutegian. Gure asmoa da kontzertu pedagogikoen eskaintza Durangaldetik zabaltzea. Abadiñoko eta Berrizko eskola publikoei maiatzean gure kontzertu pedagogikoetara etortzeko gonbidapena bidali zaie. Momentuz Zelaieta Herri Eskolak ondo jaso du gure proposamena.
- Musika Hamabostaldia: Hirugarren kontzertua egin da, Ensemble Praeteritum, eta San Agustin beteta egon da.
- Hurrengo kontzertuak: Ohiko kontzertu pedagogikoak egiteko bilerak egiten ari dira. Horrez gain, honako hauek aurreikusten dira: errepertorio gelak antolatutako kontzertuak, ikasleak eszenatokira igo daitezen, Jam Sesion, gabonetako kontzertuak, Santa Zezilia kontzertua. Gainera, aurten, berrikuntza gisa, gabonetako zuhaitzetako argiak piztuko ditugu.
- Bilerak: Mintegiak elkartzen ari dira, IHP eguneratzeko.
- EHME: Ohiko bilerak egiten ari dira, Euskal Herriko Musika eta dantza Eskolen gaiak jorratzeko.
- Saxo Jardunaldia: Saxo ikasgelatik bi eguneko jardunaldia antolatu da azaroaren 28an eta 29an egiteko: Anton Gomez ikasle ohiak bi kontzertu eskainiko ditu.
- Ate irekien jardunaldia: Azaroaren 15ean, larunbatean, ate irekien jardunaldiak egon dira eta 5 pertsona hurbildu dira eraikina ikustera.
- Formakuntza: EHMEk antolatutako ikastaroak egingo ditugu ikasturtean zehar.

- Nuevas acciones: El encendido de luces para dar comienzo a las navidades en el centro, en el que participaran alumnado de Música y Movimiento y Lenguaje Musical.
  Para los conciertos pedagógicos estamos captando más público, de momento se incluye Zelaieta Herri Eskola.
- Quincena Musical: Se ha celebrado el tercer concierto, Ensemble Praeteritum, el teatro de San Agustin estuvo completo.
- Próximos conciertos: Próximos conciertos: Conciertos pedagógicos, conciertos del aula de repertorio, para que el alumnado salga al escenario, Jam Sesion, Santa Cecilia, conciertos de navidad, encendido de luces como novedad este curso.
- Reuniones: Se están reuniendo los seminarios para seguir actualizando el PEC.
- EHME: Se sigue reuniendo para tratar diferentes temas que afectan a las Escuelas de Música y Danza del País Vasco.
- Jornada Saxo: El 28 y 29 de noviembre se celebrara esta jornada con dos conciertos de la mano de un ex alumno, Anton Gomez.
- Puertas abiertas: El sábado 15 de noviembre, acudieros 5 personas..
- Formación: Se llevaran a cabo los cursos habituales de la EHME durante el curso escolar.
- Web nueva: Debido a la falta de personal en el departamento de calidad, se pospone renovar la web para el próximo curso.
- Colaboración con asociación de Durango: El dia 28 se colaborara con Jaizale en un concierto.
- Charlas Musicales: Se colaborara en diferentes charlas con el museo de arte e historia.

- Webgunea: Udaleko kalitate sailean dagoen pertsona faltagatik, gure webgunea berritzeko lana datorren ikasturtera atzeratuko da.
- Durangoko elkarteekin lankidetza. Jaizale elkartearekin kolaborazio bat egingo da abenduaren 28an egingo duten kontzertuan.
- Entzunaldi musikalak; Hitzaldi bereziak antolatu dira Arte eta Historia Museoarekin lankidetzan.

Oihana Estibez andreak galdetu du ea usoen arazoari aurre egiteko zerbait egin den. Arantza Barrenetxeak galdetuko duela esan du.

**3.- LAU.- Akordioen inguruko kontuak.**

Eskolania proiektuaren onarpena:

Isabel Balanzategui andreak–hitza hartu du eta Eskolania proiektua zertan datzan azaldu die batzarkideei: helburuak, edukiak eta bestelako xehetasunak. Bozketa egin da eta aho batez onartu da.

Juan Antonio Bueno jaunak galdetu du ea nork irakatsiko duen proiektu hori; plantillako irakasle batek edo kontratazio berria egin behar den. Isabel Balanzategui andreak- esan du berak % 50eko liberazioa duela ikasketaburua izateagatik, baina beste % 50a betetzeko beste pertsona bat kontratatzeko asmoa dutela.

Asier Bikandi jaunak, erakundeko gerenteak, esan du aipatutako % 50 hori aurrekontuan sartuta dagoenez, ez duela gastu gehigarririk eragiten, beraz, orain arte bete ez den ehuneko hori beteko dugu proiektu berri hau aurrera eramateko.

**4.- LAU.- Galde-eskeak.**

Ez da galderarik egin.

Doña Oihana Estibez pregunta si se ha hecho o pensado en algo, Doña Arantza Barrenetxea responde que lo constulara.

**4.- CUATRO.- Asuntos de acuerdos.**

Aprobar el proyecto de Escolania del centro:

Isabel Balanzategui toma la palabara y expone el proyecto a todos y todas las asisitentes, explica los objetivos, contenidos y los beneficios del proyecto. Se lleva a votación y es aprobado por unanimidad.

Don Juan Antonio Bueno, pregunta sobre que profesor/a va a impartir este proyecto, si es alguien de plantilla o será nuevo. Isabel Balanzategui, responde que ella esta liberada el 50% para ejercer el puesto de jefa de estudios y ese 50% al no estar cubierto, se utilizara para este proyecto, se contratara a alguien externo, en principio hasta que deje de ser jefa de estudios del centro.

Don Asier Bikandi, gerente del Organismo, explica que ese 50% esta presupuestado en el presupuesto actual, por lo que no habría que aumentar la partida de capitulo 1, y es conveniente cubrir ese porcentaje que hasta ahora no se ha cubierto, finaliza el gerente.

**5.- CUATRO.- Ruegos y preguntas.**

No se presenta ninguna.

No habiendo más asuntos que tratar, el Presidente da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual

| Eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera eman dio batzarrari; eta nik, erakunde autonomoaren idazkari naizen honek, akta jaso eta egiaztatu dut. | | yo, como Secretaria del organismo autónomo, doy fe. |
|---|---|---|

Arantza Barrenetxea    Goiuri Aginako    Juan Antonio Bueno

Julene Zamalloa    Oihana Estibez    Jorge Varela

Sheila Gonzalez    Carlos David Garcia